

**T.A.F.A.D.¹ TITULUA ESKAINTZA PARTZIALEAN:
KIROL SEKTOREKO LANGILE ZEIN
LANGABETUENTZAT TITULUA LORTZEKO DOAKO
PRESTAKUNTZA**

Datozen urteotan TAFAD titulu ofiziala ezinbesteko betekizun bihurtuko da kirol-monitore lan egin nahi duten pertsonentzat. Neurriak hartzen hasteko beharrean gaude sektoreko egungo langileek titulu ofiziala eskuratu ahal izan dezaten; edo, titulua lortu ezean, lanbide-gaitasuna eskuratzeko behar besteko trebetasuna dutela egiaztatzen duen agiria lor dezaten.

2010-2011 ikasturtetik aurrera gure lanbide heziketako ikastolak, Getxo Kirolak erakundearen laguntzaz, kirol sektoreko langileentzat TAFAD heziketa zikloa eskaintza partzian irakasteari ekingo dio. Hau da, moduluka edo irakasgaika eta ordutegiak, egutegia eta edukiak ikasleen beharretara egokirik. Inolako zalantzarik gabe, sektorean lan egiteko lanbide titulu ofiziala ez daukan langileentzat aukera paregabea.

Interesdunek lanbide modulu guztietan edo nahi duten moduluetan edo moduluan egin ahal izango dute matrikula gutxienerako ikasle kopuru bati komeni zaion ordutegian.

Burutu eta gairatutako moduluak edo irakasgaiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ofizialki ziurtatuko ditu, eta TAFAD titulu eskuratzeko edo sektorean lanbide-gaikuntza lortzeko balio izango dute guztiek.

18 urtetik gorako kirol sektorean diharduten pertsonentzat edo langabetuentzat bereziki zuzendutako prestakuntza eskaintza da. Halaber, batxilergo titulu edo akademikoki parekoa den beste titulu bat eduki beharko dute. Titulu hau edo parekoa ez daukaten pertsonak goi mailako zikloetara sartzeko sarbide protokoloari jarraituz lortu beharko dute. Azken aukera honetaz gure ikastolan argibideak eska itzazu.

Aurrematrikula eta eskabideak egiteko prozedura martxoaren 15etik abiatuko da eta maiatzaren 15era arte luzatuko da. Modulu bakoitzeko taldeak izena emateko ordenaren arabera osatuko dira. Aurrematrikula egiteak ez du matrikula egitera behartzen plaza bat erreserbatzeko modua besterik ez baita.

¹ TAFAD – TAFYD: Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapeneko Goi Teknikaria.